OIARTZUNGO UDALAREN ERANTZUKIZUN ZIBILA/PATRIMONIALAREN, ONDASUNETAN IZAN LITEZKEN KALTEEN ETA EKIPO ELEKTRONIKOEN ASEGURUEN KONTRATAZIOA, PROZEDURA IREKIA ETA ERREGULAZIO HARMONIZATU BIDEZ

-BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIA –

ESPEDIENTE KODEA:	2022KO160001

1.- KONTRATUAREN XEDEA:
OIARTZUNGO UDALAREN ERANTZUKIZUN ZIBILA/PATRIMONIALAREN, ONDASUNETAN IZAN LITEZKEN KALTEEN ETA EKIPO ELEKTRONIKOEN ASEGURUAK KONTRATATZEA.

CPV-08 kodea: 66516000-0 (Erantzukizun zibileko aseguru zerbitzuak), 66515000-3 (Kalteen aseguru zerbitzuak).

2.- ESLEIPEN PROZEDURA:
Irekia eta erregulazio harmonizatua. Lizitazio elektronikoa

3.- ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ERA:
Ohiko izapidetza.

4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA
Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua: urteko 80.000.- eurokoa da, BEZtik salbuetsia.
SPKLeko 100.2 artikuluan xedatutakoa jarraiki, lizitaziorako oinarrizko aurrekontuaren banakapena honako hau da:

KOSTU ZUZENAK: Barne gastuen aurreikuspena (lan kostuak) Ez-behar kopuruen aurreikuspena	**64.000, 00 euros**
ZEHARKAKO KOSTUA: Bitartekariaren komisio aurreikuspena	**12.000,00 euros**
ETEKIN INDUSTRIALA	**4.000,00 euros**

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

enpresariala	
GUZTIZKO KOSTUA/URTEAN:	**80.000,00 euros**

KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA: 336.000.- eurokoa da, BEZtik salbuetsia

Honako kopuru hauetan banatuak:
- Hasierako iraupena: 160.000.- euro
- Aurreikusitako luzapenak: 160.000.- euro
- Kontratuaren aldaketak: 16.000.

5.- KONTRATUAREN IRAUPENA:
BI URTE eta urte naturaletan luzatu ahal izango da, kontratuaren iraupen osoak, luzapenak barne, ezingo du lau urte baino luzeagoa izan.

6.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA:
Ez da eskatzen.

7.- BEHIN BETIKO BERMEA:
Esleipenaren zenbatekoaren %5eko baliokidea, BEZ gabe.

8.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:
30 egun natural, lizitazio honen iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidaltzen den egunetik kontatzen hasita.

9.- ALDAERAK
Ez dira onartzen.

10.- KAUDIMENA:

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzea, honako hautakoren baten bidez:

- Lizitatzailearen **kontratatu nahi den eremuari dagokion urteko negozio bolumena** azkeneko hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona, 120.000 euro edo handiagokoa izan behar du.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez, onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak, egiaztatuko da, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

- **Arrisku profesionalengatik indemnizatzeko aseguru bat** edukitzea, kontratuaren bataz besteko balioa (336.000.- euro) baino txikiagoa ez den zenbatekoan, kontratua gauzatzen den denbora osoan estaldura mantenduko dela bermatzeko.

Agiri hauen bidez egiaztatu behar da baldintza hau betetzen dela: aseguratzaileak egindako ziurtagiria, non aseguratutako zenbatekoak eta arriskuak eta aseguruaren epe-muga jasotzen diren;

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

eta, kasu bakoitzean, asegurua egiteko, luzatzeko edo berritzeko konpromiso loteslea duela adierazten duen agiria.

Kaudimen tekniko edo profesionala ondorengo agiriekin egiaztatuko beharko da:

- **Azkeneko hiru urteetan kontratuaren xede diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu nagusien zerrenda**, zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, publiko edo pribatuarentzako, aipatuz.

Kontratazio organuaren menpe dauden zerbitzuak eskatu ahal izango dio egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatzea organo eskudunak egin edo ontzat emandako ziurtagirien bitartez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez; bere kasuan, ziurtagiri hauek zuzenean kontratazio organoari igorriko dizkio eskumena duen agintaritzak.

Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa56.000.- euro kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bereko edo antzekoetan. Enpresariak gauzatutako zerbitzuen eta kontratuaren xede diren zerbitzuen arteko loturarako irizpidetzat hartuko da sailkapen azpitalde berekoak izatea, kontratua kokatuta balego arautegian ezartzen direnetako batean, eta hala ez balitz, CPV sailkapenaren barnean dagozkien kodeetan lehenengo digituen artean dagoen berdintasuna.

Zerrendan adierazitako zerbitzuen artean hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan denetan egindako egikaritza egokiaren ziurtagiriak zuzenean kontratazio organoari igorri ahal izango dizkio zerbitzuak kontratatu dituen erakundeak.

- Kontratu honen xede diren alorrei dagokienez Ekonomia eta Ogasun Ministerioan Aseguruen Zuzendaritza Orokorreko Erakunde Aseguratzaileei buruzko Erregistro Berezian izena eman izanaren egiaztagiria.

11.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK:
Irizpide automatikoak (0-100 puntu):

- Prezioa, proposamen ereduaren arabera (60 puntu arte):
- Polizen baldintzen hobekuntzak (40 puntu arte):

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.- Agiri honetan oinarritzen den kontratuaren xedea ondorengo arriskuak aseguratzea izango da: OIARTZUNGO UDALAREN ERANTZUKIZUN ZIBILA/PATRIMONIALARENA, ONDASUNETAN IZAN LITEZKEN KALTEENA eta EKIPO ELEKTRONIKOENA, baldintza agiri honetan ezarritakoaren arabera eta baldintza teknikoen agiriarekin bat etorriz, hauek kontratu balioa dutelarik.

2.- Kontratu honen xedeak lote bakarra osatzen du.

3.- Kontratuaren gaiari dagokion nomenklaturaren kodifikazioa, CPV-08 kodea: 66516000-0 (Erantzukizun zibileko aseguru zerbitzuak), 66515000-3 (Kalteen aseguru zerbitzuak).

Agiri honekin batera onartutako baldintza teknikoen agirian jasotzen dira aipatu polizen baldintzak.

Lizitatzaileek klausula osagarriak eskaini ahal izango dituzte ezarritakoentzat, baina baliorik ez dute izango kontraesanean daudenek edo aipatu agirian jasotzen diren aseguratuen eskubideak mugatzeko direnek. Hala ere, indarrean dauden legezko xedapenak errespetatuko dira eta, ondorioz, aginduzko lege arauak transkribatze hutsa edo erreferentzia dakarten klausulak edo erabilera orokorreko oinarriak, definizioak edo oharrak onartuko dira. Era berean, ulertuko da baldintza teknikoen agirian ezartzen diren baldintzek lehentasuna edukiko dutela lehiaketa honen xede den aseguruaren modalitate bakoitzak dauzkan beste edozein baldintza orokorren gainetik.

4.- Kontratu honen xedean ez du sartzen aipatu polizen kudeaketarako aseguru bitartekariaren jarduera.

Oiartzungo Udalak bitartekari bat izendatuko du kontratuaren bitartekaritza lanak egiteko, eta horren berri emango dio kontratu honen esleipendunari. Bitartekari horren ordainsaria, kontratu honen esleipendunaren kontura izango da, Oiartzungo Udalak kontratatutako polizen prima garbien gaineko komisioaren bitartez, sektorean erabili ohi den moduarekin bat etorriz.

5.- Ez da eskaintza alternatiboen proposamenik onartuko.

6.- Baliogabetzat eta ondorio gabekotzat joko dira, agiri honek eta baldintza teknikoen agiriak jasotakoaren kontra doazen entitate esleipendunaren polizaren baldintza orokor edo partikularretan sartutako hitzartze eta klausula guztiak.

2. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA

1.- Agiri honetan aipatzen den kontratuaren iraupen osoa BI URTEKOA izango da, urte naturaletan luzatu ahal izango dena, eta kontratuaren iraupen osoak, luzapenak barne, ezingo du lau urte baino handiagoa izan.

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

Luzapena Kontratazio organuak erabakiko du eta kontratistarentzat nahitaezkoa izango da, beti ere kontratuaren iraupen epea bukatu baina bi hilabete lehenagotik adierazten bada.

Nolanahi ere, luzapena berariaz ebatzi beharko da.

2.- Kontratua 2023ko urtarrilaren 1eko 00:00 ordutan sartuko da indarrean.

Polizen ondorio datatik hasita, aseguru-etxe esleipendunak bere gain hartuko du esleitutako kontratuaren arriskua.

Primaren ordainketan atzerapen bat izateagatik ez da kontratua amaitutzat joko eta ez du aseguru-etxea salbuetsiko sortzen diren ezbeharrei erantzutetik.

3.- Lizitazio honen enpresa esleipendunak kontratuaren iraupen guztian zehar, luzapenak barne, bere horretan mantendu beharko ditu eskaini dituen baldintzak.

3. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

1.- Kontratuaren gehieneko aurrekontua eta poliza guztietarako lizitazioaren zenbatekoa urteko 80.000.- eurokoa da, BEZtik salbuetsia. Zenbateko honetan barne sartzen dira: Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari dagokion prima, Aseguru Primen gaineko Zerga, eta Aseguru Entitateen Likidazio Batzordearen errekargua, eta ezarri beharreko beste edozein zerga.

Lizitatzaileek kopuru horretatik behera dagoen eskaintza egin dezakete, bestelako kopuru zehatz eta finko bat proposatuz.

Adierazitako lizitazio motan, lizitatzaileek egiten dituzten proposamenetan eta kontratua esleituko den zenbateko zehatz, jakin eta mugatuan, ondorio guztietarako, kontratuaren prezioak ez ezik, kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergen kuotak ere sartuta daudela ulertuko da beti.

2.- Ondorioz, kontratuaren balio estimatua 336.000 eurotan ezartzen da, egonez gero, luzapenak eta aurreikusitako aldaketak barne (lau urteetarako).

4. FINANTZAKETA

Agiri honetan aipatzen den kontratuaren gauzatzeari tramitazio administratiboa egiten den hurrengo ekitaldian emango zaio hasiera. Hori dela-eta, etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko du aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

5. ORDAINTZEKO MODUA

1.- Primak urtero ordainduko dira. Aurretik, enpresa esleipendunak dagokion erreziboak aurkeztu beharko ditu, eta errezibo horiek zerbitzuaren udal teknikari arduradunak gainbegiratu eta egiaztatuko ditu, eta indarrean dauden xedapenetan ezarritako tramiteak bete ondoren.

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

Faktura onartu eta gero, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 198. artikuluan legez aurreikusitako epeetan ordainduko da.

2.- Primak ordaintzen diren momentua edozein izanda ere, aseguru konpainia behartua egongo da aseguru kontratua indarrean den bitartean gertatutako ezbeharrengatik kalte-ordainak ordaintzera.

3.- Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, faktura elektronikoa ematera derrigortuta dauden entitateek fakturak formatu elektronikoan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez bidali beharko dituzte, helbide honetara: https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua Oiartzungo Udala atxikitua baitago, horretarako Udalaren DIR3 kodeak erabiliz:

1. Kontabilitate Bulegoa: L01200631
2. Organo Kudeatzailea: L01200631
3. Unitate Izapidetzailea: L01200631

6. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honek ez du prezio berrikuspenik izango, 23 klausulan zehaztutakoaren kalterik gabe.

7. BERMEAK

a) Behin-behineko bermea.- Ez da behin-behineko bermerik eskatzen.

b) Behin-betiko bermea.- Kontratu honen lizitazioan proposamen ekonomikorik onuragarriena aurkezten duen lizitatzaileak, hartuko dituen konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri beharko du, esleipenaren zenbatekoaren %5eko baliokidea.

1.- Berme hori jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, 14. klausulan aipatzen den errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko modua, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 108. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoak erabili daitezke. Lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

2.- Behin betiko bermeak honako alderdi hauei aurre egingo die:

- Kontratuan jasotako prestazioak behar bezala gauzatzeari.
- Kontratistak bere betebeharrak betetzen berandutzeagatik Administrazioari eragindako gastuei.
- Kontratua bete gabe uztean edo kontratua gauzatzerakoan Administrazioari eragindako kalte eta galerei, kontratua suntsiaraztea ez badagokio.
- Kontratistari ezartzen zaizkion zehapenei.
- Kontratua suntsiarazten denean ezarri daiteken konfiskatzeari.

Baldin eta Administrazioa bermeaz baliatzen bada gorago zehaztutako kasuetarako, bermea

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

berehala osatu edo jarri behar da berriro, eta borondatez hala egiten ez bada horretarako emandako epean, hurrengo ordainketa egiten denean kendu egingo da dagokion kopurua.

3.- Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

8. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki harmonizatu bidez egingo da, eta ohiko izapidetzea jarraituz.

Kontratu hau esleituko da esleipen irizpide ugari erabiliz, kalitate-prezio erlazio onenaren arabera.

Kontratuaren esleipena egiterakoan, ematen zaien garrantzi eta haztapenaren arabera handienetik txikienerako ordenan, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat eskaintzak balioesteko:

A: Automatikoki balioesteko irizpideak ("B" artxiboa)

1) Prezioa, proposamen ereduaren arabera (60 puntu arte):

Onartutako eskaintzen batezbestekoarekiko (lizitazio motarako adierazitako baldintzetan) %10eko hobekuntza edo gehiago suposatzen duen eskaintza onenari (hipotetikoa edo erreala) gehienezko puntuazioa emanez egingo da balorazioa.

Gainerako eskaintzen puntuazioa jaisten joango da proposamen ekonomikoa gorantz doan neurrian, jarraian deskribatuko den formula matematikoaren arabera, eta zero puntu izatera helduko da eskaintzak lizitazio-proposamena berdintzen badu.

$$Pn = Pmax \times (TL - Vn) / (TL - Vmin)$$

Non

$\mathbf{P_n}$ eskaintzagatik lortutako puntuazioa baita.
$\mathbf{P_{max}}$ irizpide honekin eman beharreko puntuazio maximoa baita.
TL lizitazio-mota baita.
$\mathbf{V_n}$ ebaluatu beharreko eskaintzaren irizpide honetarako balioa baita.
$\mathbf{V_{min}}$ Udalarentzat abantaila handiena duen balioa da, arestian aipatutako suposizioetatik eta portzentaietatik ateratzen den eskaintza teoriko (aurkeztutako eskaintzen bataz bestekoaren %10eko hobekuntza egiten duen eskaintza teorikoa, prezio hori hobetzen duen eskaintza errealik ez badago) edo erreal gisa ulertuta.

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

Eskaintzaren alderdi ekonomikoen azkeneko balioespena bigarren dezimalera biribilduko da.

Anormaltasunez edo neurriz kanpoko balioak dituzten eskaintzak:

Hasiera batean, neurriz kanpoko edo anormaltzat hartuko dira Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren) 85. artikuluaren arabera halakotzat hartu beharrekoak ere.

Eskaintza bat anormalki baxua dela uste den kasuan, kanporatua izan daiteke, SPKLren 149 artikuluan ezarritako prozedura jarraitu ondoren.

2) Polizen baldintzen hobekuntzak (40 puntu arte):

Frankizien beherapenak, estalduraren hobekuntza eta kapital aseguratuen gehikuntza aintzat hartuko dira, modu honetan:

a) ERANTZUKIZUN ZIBILA/ONDARE ERANTZUKIZUNA:

1. Baldintza teknikoen agirian ezbehar bakoitzeko ezarrita dagoen 750 euroko **frankizia murriztea: gehienez 15 puntu.**
    - 0 euroko frankizia ezbeharreko: 15 puntu.
    - 750 euroko frankizia ezbeharreko: 0 puntu

    Kopuru horien tartean egon daitezkeen eskaintzak proportzionalki jasoko dituzte puntuak.

2. **Ezbehar bakoitzeko kalte-ordain maximoa handitzea**, baldintza teknikoen agirian ezbehar bakoitzeko aurreikusita dagoen kalte-ordain maximoa (hiru milioi [3.000.000] euro) mantenduta, edonola ere: **gehienez 4 puntu**.

    4 puntu emango zaizkio ezbehar bakoitzeko kalte-ordain maximoa handitzeko eskaintza onena aurkezten duen lizitatzaileari. 0 puntu emango zaizkio ezbehar bakoitzeko kalte-ordain maximoa handitzen ez duen lizitatzaileari, eta gainerako lizitatzaileei aurkezten duten gehikuntzarekiko modu proportzionalean esleituko zaizkie puntuak, formula matematiko honen bidez:

$$Pn = 4 \times \frac{Ol - 3.000.000}{Mo - 3.000.000}$$

Non:
P_n eskaintzak jasotako puntuazioa da.
Ol lizitatzailearen eskaintza.
Mo eskaintza onena

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

3. **Biktima bakoitzeko azpi-muga handitzea (Ustiapenaren, Erantzukizun Zibil Patronalaren eta Erantzukizun Zibil Gurutzatuaren estaldura)**, baldintza teknikoen agirian aurreikusita dagoen biktimako azpi-muga (seiehun mila [600.000] euro) mantenduta, edonola ere: **gehienez 2 puntu**.

   2 puntu emango zaio biktima bakoitzeko azpi-muga handitzeko eskaintza onena aurkezten duen lizitatzaileari. 0 puntu emango zaizkio biktima bakoitzeko azpi-muga handitzen ez duen lizitatzaileari, eta gainerako lizitatzaileei aurkezten duten gehikuntzarekiko modu proportzionalean esleituko zaizkie puntuak, formula matematiko honen bidez:

$$Pn = 2 \times \frac{Ol - 600.000}{Mo - 600.000}$$

   Non:
   P_n eskaintzak jasotako puntuazioa da.
   Ol lizitatzailearen eskaintza.
   Mo eskaintza onena

4. **Urteko edo aseguru aldiko muga handitzea**, baldintza teknikoen agirian aurreikusita dagoen urteko edo aseguru aldiko muga (bederatzi milioi [9.000.000] euro) mantenduta, edonola ere: **gehienez 2 puntu**.

   2 puntu emango zaio urteko edo aseguru aldiko muga handitzeko eskaintza onena aurkezten duen lizitatzaileari. 0 puntu emango zaizkio urteko edo aseguru aldiko muga handitzen ez duen lizitatzaileari, eta gainerako lizitatzaileei aurkezten duten gehikuntzarekiko modu proportzionalean esleituko zaizkie puntuak, formula matematiko honen bidez:

$$Pn = 2 \times \frac{Ol - 9.000.000}{Mo - 9.000.000}$$

   Non:
   P_n eskaintzak jasotako puntuazioa da.
   Ol lizitatzailearen eskaintza.
   Mo eskaintza onena

5. **Estaldurak zabaltzea: gehienez 3 puntu.**
   - Izaera pertsonaleko datuen babesetik eratorritako erantzukizun zibila sartzea: **1 puntu.**
   - Epai irmoan onartutako erantzukizun penalen ondorioz Oiartzungo Udalari eska diezazkioketen ondorio zibiletarako erantzukizun zibilaren estaldura sartzea: **1 puntu.**
   - Kanalen, eraikinetatik bereizitako lurren euste-hormen eta linea elektrikoen euste-dorreen erantzukizun zibilaren estaldura sartzea: **1 puntu.**

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

Erantzukizun zibileko estaldura guzti hauen bermeak, berme nagusiaren kopuru berak behar dute izan (3.000.000.- euro ezbehar bakoitzeko eta 9.000.000.- euro urte bakoitzeko)

6. **Aseguru etxearekin adostutako frankizia baino kalte-ordain txikiagoa dagokien ezbeharren zuzendaritza juridikoaz arduratzea: <u>1 puntu.</u>**

7. **Estalduraren epea luzatzea poliza indarrean zegoen bitartean jazotako gertaeren ondorioz poliza amaitu ostean aurkeztutako erreklamazioetarako (24 hilabeteko epea dago aurreikusia baldintza teknikoen agirian): <u>gehienez 1 puntu.</u>**

1 puntu emango zaio epea hilabete gehien luzatzen duen lizitatzaileari. 0 puntu emango zaizkio epea luzatzen ez duen lizitatzaileari, eta gainerako lizitatzaileei aurkezten duten luzapenarekiko modu proportzionalean esleituko zaizkie puntuak, formula matematiko honen bidez:

$$Pn = \frac{Ol - 24}{Mo - 24}$$

Non:
P_n eskaintzak jasotako puntuazioa da.
Ol lizitatzailearen eskaintza.
Mo eskaintza onena

b) KALTEAK ONDASUNETAN:

1. Berme nagusiaren berme osagarrietarako eta berme gehigarrietarako **frankizia murriztea** (baldintza teknikoen agirian ezbehar bakoitzeko 300 euroan ezarrita dago). **<u>gehienez 3.</u>**
    - 0 euroko frankizia ezbeharreko: 3 puntu.
    - 300 euroko frankizia ezbeharreko: 0 puntu

    Kopuru horien tartean egon daitezkeen eskaintzak proportzionalki jasoko dituzte puntuak.

2. **Estaldurak zabaltzea: gehienez 5 puntu.**

    - **Hiri altzarietako ondasunen kasuan ekintza bandalikoen salbuespena ezabatzea**, betiere estalduratik kanpo utzita pintadak, marradurak eta urradurak: **1 puntu.**

    Lizitatzaileak adierazi bakarrik egin beharko du kontzeptu hori sartzen duen ala ez, eta puntuazio maximoa emango zaio salbuespena ezabatzen duen lizitatzaileari, eta minimoa, berriz, mantentzen dutenei. Ez dute inolako ñabardurarik erantsi beharko;

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

erantsiz gero, ez da aintzat hartuko, eta ulertuko da salbuespen hori ez dagoela eskaintzan sartuta.

- **Aseguru hartzaile eta/edo aseguratuaren jabetzako ondorengo ondasunak, kanpoko kirol pistak, ondasunetan izan litezkeen kalteen aseguruaren bermean sartzea,**

Ondasunak	**Kokapena**	**Edukitzailea €**
Pikagarai	Madalensoro frontoiaren alboan	40.000,00
Arragua	Anbulategiaren parean	40.000,00
Skate park	Skatepark Plaza, Iturriotz auzoko Gaetxe pabelloien lurretan	90.000,00

Ondasun hauek, Baldintza teknikoen agiriaren I eranskinean, estali beharreko ondasunen zerrendan txertatu dira. **3 punturekin baloratuz, honako banaketarekin:**

- Ondasun hauek, lehen arriskuan estali beharko dira, ezbehar bakoitzeko 6.000.- euroko mugarekin, **2 punturekin** baloratuz estaldura sartzea.
- Ezbehar bakoitzeko gehienezko frankizia bakarra ezartzen da, 300 eurotakoa.

  Estaldura honetarako ezarritako frankizia murrizten duen lizitatzaileak honako puntuazioa jasoko du: **gehienez 1 puntu.**

  - 0 euroko frankizia ezbeharreko: 1 puntu.
  - 300 euroko frankizia ezbeharreko: 0 puntu

  Kopuru horien tartean egon daitezkeen eskaintzak proportzionalki jasoko dituzte puntuak.

- **Arau proportzionala indargabetzea: 1 puntu.**
  Lizitatzaileak eskaintza hori sartzen duen ala ez bakarrik adierazi beharko du.

3. **Makinen matxuren estaldurarako frankizia murriztea (ezbehar bakoitzeko 2.000 euroan ezarrita dago): <u>gehienez 1 puntu.</u>**
   - 0 euroko frankizia ezbeharreko: 1 puntu.
   - 2.000 euroko frankizia ezbeharreko: 0 puntu.

   Kopuru horien tartean egon daitezkeen eskaintzak proportzionalki jasoko dituzte puntuak.

4. **Kristalak, beirak, ispiluak eta errotulu argidunak apurtzen direnerako frankizia murriztea (ezbehar bakoitzeko 90 euroan ezarrita dago): <u>gehienez 1 puntu.</u>**
   - 0 euroko frankizia ezbeharreko: 1 puntu.

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

- 90 euroko frankizia ezbeharreko: 0 puntu

Kopuru horien tartean egon daitezkeen eskaintzak proportzionalki jasoko dituzte puntuak.

c) TRESNA ELEKTRONIKOAK:

1. Baldintza teknikoen agirian ezbehar bakoitzeko ezarrita dagoen 200 euroko **frankizia murriztea: gehienez 2 puntu.**
   - 0 euroko frankizia ezbeharreko: 2 puntu.
   - 200 euroko frankizia ezbeharreko: 0 puntu.

   Kopuru horien tartean egon daitezkeen eskaintzak proportzionalki jasoko dituzte puntuak.

9. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaz gain, lizitazio honen iragarkia Oiartzungo Udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da (www.oiartzun.eus), Euskadiko Kontratazio-Plataforman dagoena.

10. KONTRATATZEKO GAITASUNA

1.- Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna daukaten pertsona fisiko zein juridikoek hartu ahal izango dute parte kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Era berean, pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Pertsona juridikoen ordezkariek, ordezkari izateko ahalmena dutela frogatu beharko dute agiri bidez. Kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariari ere aplikatuko zaizkie.

2.- Gainera, enpresariek kontratu honen jarduera edo prestazioa egiteko kasuan kasu eskatu daitekeen habilitazio enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

3.- Enpresari batzuk kontratazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute horretarako. Esleipena bere alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoaren bidez formalizatzea. Kasu horretan, enpresariak modu solidarioan erantzungo dute Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu ahaldun bakarra izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitu arte.

4.- Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake. Gainera, proposamen bat bakarka aurkeztu duen lizitatzaileak ezingo du beste batzuekin aldi baterako elkartuta proposamenik

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

aurkeztu edo aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan azaldu. Lizitatzaileren batek baldintza hauek betetzen ez baditu, ez dira onartuko hark sinatutako proposamen guztiak.

5.- Proposamena aurkeztearekin lizitatzaileak bete-betean eta oso-osorik onartzen ditu baldintza agiri honetako eta gainontzeko kontratu-dokumentuetako klausula guztiak, salbuespenik gabe, eta erantzukizunez aitortzen du zuzenak direla aurkeztu dituen datu guztiak eta betetzen dituela zerbitzua kontratatzeko ezarrita dauden betekizun guzti-guztiak.

6.- Kaudimena

Lizitatzaileek ondoren zehazten diren kaudimen ekonomiko eta finantzieroa eta kaudimen tekniko edo profesionaleko baldintzak eduki beharko dituzte.

Eskaintzarik hoberena aurkezten duen lizitatzaileak bere kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatu beharko du, plegu honetako 14. Klausulan zehaztutako moduan:

a) Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzea, honako hautakoren baten bidez:

- Lizitatzailearen **kontratatu nahi den eremuari dagokion urteko negozio bolumena** azkeneko hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona, **120.000.- euro** edo handiagokoa izan behar du.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez, onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak, egiaztatuko da, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

- **Arrisku profesionalengatik indemnizatzeko aseguru bat** edukitzea, kontratuaren bataz besteko balioa (336.000.- euro) baino txikiagoa ez den zenbatekoan, kontratua gauzatzen den denbora osoan estaldura mantenduko dela bermatzeko.

Agiri hauen bidez egiaztatu behar da baldintza hau betetzen dela: aseguratzaileak egindako ziurtagiria, non aseguratutako zenbatekoak eta arriskuak eta aseguruaren epemuga jasotzen diren; eta, kasu bakoitzean, asegurua egiteko, luzatzeko edo berritzeko konpromiso loteslea duela adierazten duen agiria.

b) Kaudimen tekniko edo profesionala ondorengo agiriekin egiaztatuko beharko da:

b.1) **Azkeneko hiru urteetan kontratuaren xede diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu nagusien zerrenda**, zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, publiko edo pribatuarentzako, aipatuz.

Kontratazio organuaren menpe dauden zerbitzuak eskatu ahal izango dio egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatzea organo eskudunak egin edo ontzat emandako ziurtagirien bitartez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

eginiko aitorpenaren bitartez; bere kasuan, ziurtagiri hauek zuzenean kontratazio organoari igorriko dizkio eskumena duen agintaritzak.

Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa 56.000.- euro kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bereko edo antzekoetan. Enpresariak gauzatutako zerbitzuen eta kontratuaren xede diren zerbitzuen arteko loturarako irizpidetzat hartuko da sailkapen azpitalde berekoak izatea, kontratua kokatuta balego arautegian ezartzen direnetako batean, eta hala ez balitz, CPV sailkapenaren barnean dagozkien kodeetan lehenengo digituen artean dagoen berdintasuna.

Zerrendan adierazitako zerbitzuen artean hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan denetan egindako egikaritza egokiaren ziurtagiriak zuzenean kontratazio organoari igorri ahal izango dizkio zerbitzuak kontratatu dituen erakundeak.

Erregulazio harmonizatua bete behar ez duten kontratuetan, kontratista enpresa berria baldin bada, halakotzat hartuta bost urtetik behera dituena, ondoren aipatutako bitarteko baten *edo batzuen bidez egiaztatuko da kaudimen teknikoa (aukeratu bat edo gehiago)* baina inolaz ere ezin izango da aplikatu zerbitzu kopuru jakin bat egiteari buruzkoa.

b.2) Kontratu honen xede diren alorrei dagokienez **Ekonomia eta Ogasun Ministerioan Aseguruen Zuzendaritza Orokorreko Erakunde Aseguratzaileei buruzko Erregistro Berezian izena eman izanaren** egiaztagiria.

11. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

1.- Kontratazio honen espedientea, eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Oiartzungo Udaleko Idazkaritza Sailaren Kontratazio Unitatean, aztertu ahal izango da, bulego orduetan, lanegunetan, Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik, eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Epea: Lizitatzaileak beren eskaintzak aurkeztu beharko dituzte **30 EGUN NATURALEKO** epean lizitazio-iragarkia **Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera bidaltzen den egunetik kontatzen hasita**. Noiz bidali den zehaztuko da udaleko kontratatzailearen profilean.

2.- Proposamenak www.contratación.euskadi.eus lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez aurkeztuko dira.

3.- Dokumentazioa nahiz jakinarazpenak eta komunikazioak bidaltzeko, jarraitu egin beharko zaio baldintza-agiri honetako **II. Eranskinean** jasotakoari.

4.- Dokumentuak/edukiak izendatzeko unean kontuan hartuko dira klausula honetan adierazitako atalak, horietan adierazten baita A eta B artxibo elektronikoetan jaso beharreko dokumentu-edukia.

5.- Eskaintzak isil-gordekoak izango dira: horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko.

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

Lizitatzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egunetan, gutxienez, emango da, beti ere arestian ezarritako eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

12.- PROPOSAMENEN EDUKIA

1.- Proposamenak hurrengo klausuletan adierazten diren artxibo elektronikoetan aurkeztuko ditu lizitatzaileak edo lizitatzailearen ordezkari diharduen pertsonak.

2.- Artxibo elektroniko bakoitzean, aparteko orri edo fitxategi batean, artxiboaren edukia jasoko da, zenbakiz adierazita (HAKLEO, 80.1 artikulua).

"A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" titulua izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

- **Erantzukizunpeko adierazpena, Kontrataziorako Agiri Europar Bakarra (DEUC) ereduaren arabera.**

DEUCen galdetegi normalizatua elektronikoki betetzeko eskuragarri dago honako web helbide honetan: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

Era berean, lizitatzaileek DEUC dokumentua bete ahal izateko, Oiartzungo Udaleko Kontratatzailearen Profilean erabilgarri dago XML formatua inportatzeko.

Lizitatzaileek IV. ataleko II, III zatiak, α atala, eta VI. atala bakarrik bete behar dituzte. Ondorio horietarako, Estatuko Ondare Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko apirilaren 6ko Ebazpenean jasotako orientabideak jarraitu behar dituzte, haren bidez argitaratu baita Kontratazio publikorako Zuzentarau berrian (2016ko apirilaren 8ko EAOn argitaratua) aurreikusitako Kontrataziorako Agiri Europar Bakarraren erabilerari buruzko Kontratazio Administratiboaren Kontsultarako Batzordearen Gomendioa.

Lizitatzaileek ez dute beren azpikontratista izan daitezkeenak baztertzeko arrazoiei buruzko informazioa emateko obligaziorik.

Enpresa lizitatzaileak eskatutako dokumentuak dituela eta baliozkoak direla egiaztatu beharko du esleipendun gisa proposatuz gero edo horretarako eskaera eginez gero (prozeduraren edozein unetan haren garapen egokia bermatzeko beharrezkoa denean).

* Aldibaterako Enpresen Elkartea (AEE):
Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresari horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta kontrataziorako agiri europar bakarreko galdetegian kasu horietarako eskatutako informazioa emango da bertan.

Aurreko paragrafoak aipagai duen adierazpen horren edo horien osagarri gisa, parte hartu behar duten enpresariek aldi baterako enpresa elkartea SPKLen 69. artikuluaren 3. atalean eskatutakoaren arabera osatzeko konpromisoa aurkeztuko da (AEEko partaide guztiek sinatutako idatzia).

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

**Atzerriko enpresak:
Atzerriko enpresek, SPKLen 67. eta 68. artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute beren gaitasuna.

Erantzukizunpeko adierazpenaz gainera, atzerriko enpresek, kontratua Espainian gauzatu behar bada, zuzenean edo zeharka, kontratutik etor litezkeen gorabehera guztietarako edozein eratako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren pean geratzen direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diote, hala behar badu, legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.

3.- Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute, lizitatzaileek, erantzukizunpeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazitako baldintzei buruz. Lizitatzaileak behar besteko epea izango du dokumentazio eskatua aurkezteko.

Epe hori ezingo da 10 egun baliodunetik gorakoa izan, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekerimendua ez bada behar bezala aurkezten aipatu epean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.

- **Helbide elektroniko gaitu bat jakinarazpenak eta komunikazioak egiteko, kontratazio prozedura honetatik sortuak, baliabide elektroniko bidez.**

"B" ARTXIBO ELEKTRONIKOA " FORMULA BIDEZ BALORAGARRIA DEN DOKUMENTAZIOA" titulua izango du, eta honako dokumentu hau sartuko da bertan: Eskaintza ekonomikoa eta polizen baldintzak, agiri honen **I. Eranskinean** jasotako proposamen ekonomiko ereduaren arabera, behar bezala beteta.

**Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bideraezin bihurtzen duen akats edo ahulguneren bat badu aurkezten duen lizitatzailearen esanetan, kontratazio-mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea, ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeko, haien zentzua aldatzen ez bada betiere.*

*** Prezioen eskaintzaren banakatzean antzeman daitezkeen akats aritmetikoak konpontzeko, oinarrizko prezioaren eta BEZ kopuru aplikagarriaren zifrak hartuko dira baliozkotzat eta ofizioz egingo dira guztizko prezioa lortzeko dagozkion kalkuluak.*

13. KONTRATAZIO MAHAIA

1.- Kontratazio organoak kontratazio-mahaiaren laguntza izango du. Hortaz gain, mahaiak hala eskatuz gero Udaleko edozein teknikari bertaratu ahal izango da aholkularitza lanak egiteko.

2.- Proposamenak ireki aurretik, eskaintzaren "A" ARTXIBO ELEKTRONIKOAN aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu Mahaiak.

Lizitatzaileek aurreko klausulan exijitutako dokumentu guztiak sartuko dituzte aurkeztutako artxiboan.

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

Mahaiak konpondu litezkeen akatsak ikusiko balitu aurkeztutako dokumentazioan, hiru eguneko epea emango du, lizitatzaileak akatsa zuzen dezan. Horretarako errekerimenduak bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dira.

3.- Kontratazio Mahaiak Oiartzungo Udaletxeko bilkura-gelan irekiko ditu proposamenak (Done Eztebe plaza 1) eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren.

Ekitaldi horretan, Kontratazio Mahaiak onartutzat eman diren eskaintzen "B" ARTXIBO ELEKTRONIKOA (formula bidez baloragarria den dokumentazioa) irekiko du ekitaldi publikoan.

Deialdi hau mantentzea nahiz balizko aldaketak argitara emango dira kontratugilearen profilean (www.oiartzun.eus), jakinarazteko egoki iritzitako beste edozein moduren kalterik gabe.

4.- Azkenik, Mahaiak kontratazio-organoari aurkeztuko dio esleipen-proposamena.

5.- Kontratazio Mahaiak edozein unetan eskatu ahal izan ditu enpresek aurkeztutako dokumentazioa aztertzeko edo eskaintzak baloratzeko beharrezko direla iritzitako txosten teknikoak eta juridikoak.

14. KONTRATUAREN ESLEIPENA

14.1.- **Eskaintzen sailkapena eta esleipen proposamena.**

Eskaintzak baloratutakoan, kontratazio-mahaiak kontratazio-organoari bidaliko dio, aktarekin batera, dagokion esleipen proposamena. Hartan beheranzko hurrenkeran antolatuak agertuko dira eskaintzak, aurreko klausulan ezarritako esleipen irizpideak aplikatuta haietako bakoitzari emandako puntuazioa barne, eta kalitate-prezioa erlazio hoberena duen eskaintza bereizita.

14.2.- **Eskaintzarik hoberena aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiazko baldintzak betetzen dituela arrazoitzen duen dokumentazioaren aurkezpena**

14.2.1. Esleipen-proposamena erabaki ondoren, errekerimendua egingo zaio SPKLen 145 artikuluaren ezarritakoaren arabera eskaintza hoberena aurkeztu duen lizitatzaileari, zeina lehena izango den sailkapen hurrenkeran, hamar laneguneko epean, errekerimendua jaso ondorengo egunetik kontatuta, ondorengo dokumentazioa aurkez dezan:

a) Lizitatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

- Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna Osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero. Pertsona juridikoak bakarrik izan daitezke esleipendun beren estatutuen edo sortze arauen arabera dagozkien helburuen eta jarduera esparruaren barneko prestazioak jasotzen dituzten kontratuak direnean, eta kontu horrek egiaztatuta egon behar du aurkeztutako dokumentazioan.

- Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

b) Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).

c) Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak.

d) Ekonomia jardueren gaineko zerga: Ekitaldi honi dagokion alta, edo azken ordainagiria, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izanari buruzko ardurapeko adierazpenarekin batera, eta, hala badagokio, salbuetsita izanaren gaineko ardurapeko adierazpena.

e) Eskaintzak aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera, kontratatzeko daukan enpresa sailkapena, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko honako dokumentazioa aurkeztuz:

Sailkaturik ez badago, edo ez bada beharrezkoa, bere kaudimena egiaztatu beharko du, plegu honetako 10.6 Klausulan ezarritako moduan.

f) Behin betiko bermea eratu denaren egiaztapena.

14.2.2.- Aurretik xedatutakoa xedatuta ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria aurkeztuz gero, enpresa lizitatzailea salbuetsita geldituko da, hartan jasotakoaren arabera eta aurkakoa frogatu ezean, erregistroan jasotako zirkunstantziei buruzko frogagiriak aurkeztetik.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria aurkezteak SPKLren 87.2 eta 96. artikuluetan eta SPKL neurri batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Ziurtagiriarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, non azalduko den ziurtagirian adierazitako zirkunstantziak ez direla aldatu.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioan frogatu beharreko baldintzetako bat jasota agertzen ez denean, enpresak SPKLn ezarritako bitartekoetako bat erabiliz frogatu beharko du.

14.2.3.- Udalak ofizioz egingo ditu, betiere ahal den neurrian, atal horietan eskatzen diren alderdi guztiak egiaztatzeko dagozkion jarduketak. Bestela, aipatutako dokumentazioa aurkezteko eskatuko du.

*****Aurreko dokumentu guztiak **jatorrizkoak edo kopia kautoak edo konpultsatuak** aurkeztu beharko dira.*
*** Aldi baterako enpresa-elkartearen kasuan**, aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala erabakitzeko, hura osatzen duten bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak batuko dira.*

Sailkapenaren betekizuna betetzen den baloratzeko balioztatzeko, taldean parte hartzen duten enpresariei dagokienez, kontuan hartuko dira, arauz zehazten den moduan, haietako bakoitzaren ezaugarri bateratuak, berei dagokien sailkapenetan adieraziak. Nolanahi ere, bateratzeko,

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

enpresa guztiek -enpresaren sailkapena lortu beharko dute aurretik, betiere SPKLren 69. artikuluaren 5. atalean espainiarrak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako eta sinatu duten estatuetako enpresarientzat finkatutakoaren kalterik gabe.

Sailkapenak bateratzeko erregimena arauz finkatuta dagoena izango da.

Kontratua enpresarien aldi baterako elkarte bati esleituko balitzaio, elkarteak eskritura publikoan egiaztatu beharko du eraketa, eta elkarte horri emandako IFZ ere egiaztatu beharko du, kontratua bere alde esleituz gero. Nolanahi ere, elkarteak kontratua iraungo arte iraun beharko du.

14.2.4.- Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza; kasu horretan, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren %3 ari dagokion zenbatekoa (BEZa kanpo) exijituko zaio zehapen modura. Kasu horretan dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren araberako hurrengo lizitatzaileari.

14.3.- **Esleipena**

1.- Behin betiko bermea eratu eta aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, kontratazio-organoak dokumentazioa jaso ondorengo hurrengo bost egun baliodunetan esleituko du kontratua.

2.- Esleipenak arrazoitua izan behar du, lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie eta, Oiartzungo Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da (www.oiartzun.eus).

3.- Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean, SPKLaren 153.3. artikuluaren arabera, zein epetan formalizatu behar den adieraziko da.

4.- Kontratuaren esleipena honako epe maximoan egingo da:15 egun natural, esleitzeko irizpide bakarra prezioa bada, edo bi hilabete, beste irizpiderik ezarri bada, proposamenak ireki ondorengo egunetik kontatuta. Ezarritako epean esleipen-erabakirik ematen ez bada, lizitatzaileek eskubidea izango dute beren eskaintza kentzeko.

5.- Kontratua Aldi Baterako Enpresen Elkarte bati esleitzen baldin bazaio, ABEE horrek bere eraketa egiaztatu beharko du, eskritura publikoan eta Elkarte horri emandako IFZ-rekin, kontratua formalizatzeko emandako epean.

15. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Kontratuak formalizazioaren bitartez indar juridikoa hartuko du.

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatu beharko da, esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei eta izangaiei bidali ondorengo hamabost egun baliodun baino lehenago ez. Nahikoa titulu izango da agiri hori, edozein erregistro publikotara sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta bere kargura izango dira horri dagozkion gastuak.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro ondoren, eta kontratuaren formalizazioa etetea eragiten duen errekurtsorik aurkeztu ez bada, kontratazio-organoak errekerimendua egingo dio

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

esleipendunari, kontratua formalizatu dezan, bost eguneko epea baino luzeagoan ez, errekerimendua jaso duen hurrengo egunetik kontatuta. Era berean jokatuko da, errekurtsoa erabakitzeko organo eskudunak etendura kentzen duenean.

Kontratua formalizatu ondoren, Europa Batasuneko Egunkari Ofizialean eta Oiartzungo Udaleko kontratatzailearen profilean (www.oiartzun.eus) argitaratuko da.

III. KONTRATUA GAUZATZEA

16. KONTRATUA GAUZATZEA ETA ZEHAPENAK

1.- Kontratazio organoak, kontratua esleitzeko ebazpenean, SPKLren 62. artikuluak xedatuakoaren arabera, kontratuaren arduraduna izendatuko du. Pertsona horren eginkizuna izango da kontratua betetzen dela ikuskatzea eta beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak ematea, hitzartutako prestazioa behar moduan eta egoki gauzatuko dela ziurtatzearren.

Kontratuaren arduraduna izango da enpresa esleipendunaren eta kontratazio organoaren arteko solaskidea.

2.- Lanak ezingo dira hasi, kontratistak kontratua sinatzen duen arte.

3.- Kontratista behartuta dago kontratua betetzera lanak egiteko finkatuta dagoen epe barruan, baita, bere kasuan, zehaztu diren zatiko epeak. Kontratista berandutzeak ez du Administrazioaren aldetik aurrez abisatu beharra ekarriko. Kontratista, berari egoztekoak diren arrazoiak tarteko, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutu egin bada, Administrazioak kontratua suntsitzeko edo SPKLen 193. artikuluan aurreikusitako zigorrak jartzeko erabakia hartu ahal izango du.

4.- Kontratistak kontratua bere “arrisku eta kontura” onartzen duela ulertuko da, SPKLen 197. artikuluaren arabera.

5.- Kontratua gauzatzerakoan, kontratuan ezarritako klausulak eta agirietan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero, eta kontratazio organoak kontratistari haiek interpretatzeko eman dizkion jarraibideen arabera. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta honek idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

6.- Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela uste badu, kontratua betetzearen ordena ona edo behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

7.- Kontratista egindako lanen kalitate teknikoaren erantzule izango da, baita burututako prestazio eta zerbitzuena ere. Era berean, kontratuaren exekuzioan gertatutako ez egiteek, akatsek, metodo desegokiek edo amaiera okerrek Administrazioari edo hirugarren batzuei ekar diezazkiekeen ondorioen erantzule izango da.

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

8.- Kontratista berari egoztekoak diren arrazoiak tarteko, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutu bada, Administrazioak kontratua bertan behera uzteko edo SPKLren 192 eta 193. artikuluek aurreikusitako zigorrak jartzeko erabakia hartu ahal izango du.

Kontratuaren xede dena gaizki betetzen deneko kasuetan kontratazio organoak zehazpenak jarri ahal izango ditu, larritasunaren proportzioan, kontratuaren esleipen prezioaren %1etik %10 era bitartean. Zehapen hauek kontratazio organoak erabakiko ditu, aurrez dagokion espedientea izapidetu ondoren zeinetan kontratistari eta kasuan abal-emaileari audientzia emango zaien.

17.- ASEGURU KONPAINIAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIO BEREZIAK

1.- Prezioa kobratzeko eskubidea, 5. klausularen araberakoa izango da.

2.- Agiri honetan jasotako eta arau osagarriak aplikatzeak ezarritako betebeharrez gain, aseguru konpainiak obligazio hauek hartzen ditu, besteak beste:

- Kontratua garatzean, zehatz-mehatz betetzea agiri honetako eta baldintza teknikoen agiriko preskripzioak eta, orobat, aldeek sinatutako kontratu dokumentua eta Administrazioak emandako jarraibide bereziak.
- Nahikoa bitarteko ezarri eta mantentzea, kontratua, indarrean dagoen bitartean, egoki beteko dela bermatzeko.
- Oiartzungo Udalak ez du batere zerikusirik izango kontratuaren xedea betetzeko esleipendunak izan ditzakeen kontratuzko harremanekin eta, zehazki, lan harremanekin.
- Bere gain hartzea jarduerak dakarzkion obligazio sozial, laboral eta fiskal guztiak.
- Sekretu profesional zorrotzena gordetzea kontratuaren xede diren gorabeherei buruz eta kontraturen kariaz ezagutu ditzakeen datuei buruz.
- Udalari ematea, ordainketa edo kalte-ordain ekonomiko osagarririk jasotzeko eskubiderik izan gabe, kontratua behar bezala garatzeko eta gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu profesionalak; zehazki, lan bileretara edo informazioa emateko bileretara joatea.
- Aseguru konpainiak, ere, eskatzen zaizkion txostenak eta proposamenak egin beharko ditu. Halaber, Udalak eskatutako polizaren edukiari buruzko informazioa emango dio eta, ezbeharra gertatzen denean, Udalari eta aseguruaren onuradunei aholkua eta laguntza emango die.
- Aseguru bitartekariari dagozkion ordainsariak ordaintzea.
- Kalte-ordainak ordaintzea.
- Kontratua gauzatzean, hirugarrengoei egindako kalteen eta galeren erantzukizuna hartzea.
- Udalari honako datu hauek jakinaraztea: polizaren indarraldian izandako ezbeharren kopurua; aurkeztutako erreklamazioei aurre egiteko kalte-ordainen ordainketari begira, aseguru etxeak egindako aurreikuspenak; eta kontzeptu horregatik benetan ordaindutako zenbatekoa.
- Oiartzungo Udalari jakinaraztea Aseguru-Konpainiaren fusioa edo zatiketa. Horretarako, honelako operazio mota hauek egitea baimenduz Aseguruetako Zuzendaritza Nagusiaren Agindua bidaliko du.

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

18. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202 artikuluaren arabera, kontratua gauzatzeko baldintza berezi bezela ezartzen da honakoa:

18.1 ENPRESA KONTRATISTAK LAN, GIZARTE-SEGURTASUN ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOAN DITUEN BETEBEHARRAK

1.- Kontratistak lan arloan, gizarte segurantza arloan eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden xedapen legezko, arauzko eta konbentzional guztiak bete behar ditu. Zehazki, dagokion Hitzarmen Kolektiboko lan-baldintzak aplikatu beharko ditu, indarrean leudeken eta bertan xedatutakoa hobetuko luketen enpresako beste hitzarmen edo itun batzuen kalterik gabe, bere erantzukizun esklusiboa izanik lan-istripuekin lotutako oro.

2.- Kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa kontratistak ordaindu beharko du langilearen kategoria profesionalari aplikagarri zaion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata, eta ezingo da inola ere izan hitzarmenekoa baino txikiagoa.

Kontratuaren egikaritzeak irauten duen bitartean, enpresa esleipendunak kontratura atxikitako langileen lan-baldintzak mantendu beharko ditu derrigorrez aplikagarri den hitzarmen kolektiboaren arabera, horiek okertu gabe; eta hori, hitzarmen kolektiboei indarraldia amaitzeari buruz aurreikuspen legezko edo konbentzionalak aplikatzearen ondorioz aipatu hitzarmenak ondoren indarraldia galtzeko aukeraren kalterik gabe. Betebehar hori bete dela ulertuko da hitzarmenak indarra galdu aurreko – halakorik gertatuz gero – berehalako unean hitzartuta zeuden lan-baldintzak mantentzen badira. Edonola ere, lan baldintzak mantendu direla ulertuko da baldin eta lan baldintzak aldatu badira enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren arteko adostasunaren bidez. Hala ere, soldata baldintzak ezingo dira inola ere alorreko hitzarmen kolektibo aplikagarrian xedatutakoak baino apalagoak izan.

3.- Lizitatzaileek, beren eskaintzan zehaztu beharko dute kontratuko objektua den jarduera egiten duten langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatuko dieten, baldin eta esleipendun suertatzen badira.

4.- Enpresa kontratatua behartuta egongo da informazioa ematera, baldin eta eskatzen bazaio informazioa emateko kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei benetan zer lan baldintzak aplikatzen zaizkien.

5.- Klausula honetan jasotako betebeharrak betetzeak sortutako gastuak enpresa esleipendunaren konturakoak izango dira, eta kontratua gauzatzeko eskainitako prezioan sartuta egongo dira.

6.- Azpikontrataziorik egiten bada, klausula honetan xedatutakoa bete beharko du enpresa azpikontratistak. Azpikontratatutako jarduerari hasiera eman baino lehen, enpresa kontratistak egiaztatu beharko du azpikontratatutako enpresako langile guztiak gizarte segurantzan izena eta alta emanda daudela, eta horren berri eman beharko dio kontratazio organoari.

7.- Kontratua gauzatzeko baldintza berezi honek funtsezko betebeharraren izaera du. Ondorioz, klausula hori nola edo hala ez betetzea kontratua ebazteko arrazoia da.

Kontratuaren parte diren exekuzio baldintza berezi guztiak era berean eskatuko zaizkie

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

kontratuaren exekuzioan parte hartuko duten kontratista guztiei.

18.2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI DAGOKION BALDINTZAK

1.- Enpresa esleipendunak, kontratua egikaritzean, ezarri beharko ditu emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzen duten neurriak, enplegurako sarbideari, sailkapen pertsonalari, sustapenari, iraunkortasunari, prestakuntzari, ordainsariei, kalitateari, lan egonkortasunari, eta lanaldiaren iraupenari eta antolakuntzari dagozkienak, baita bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa bateratzen laguntzen dietenak ere kontratua egikaritzera atxikitako langileei, 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoan, xedatutakoari jarraikiz.

2.- Enpresa esleipendunak hizkera ez sexista erabili beharko du kontratu hau egikaritzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero rol eta identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

3.- Espresa edo erakunde esleipendunak bermatuko du sexu jazarpena edo sexu arrazoiengatiko jazarpenaekiditeko neurriak hartzen direla.

4.- Kontratua gauzatzeko enpresa kontratistak edo azpikontratistak langile berriak kontratatu behar baditu, plantillan emakumeen ordezkaritza desorekatua duenean, gutxienez emakume bat kontratatu beharko du edo aldi baterako emakume kontratu bat kontratu mugagabe bihurtu beharko du, edo behar bezala justifikatu zergatik ezin izan duen baldintza hori bete. Plantillan emakumeen ordezkaritza edo presentzia desoreka dagoela ulertuko da, ordezkaritza edo presentzia hau guztizkoaren % 40 baino txikiagoa denean.

5.- Klausula honetan jasotako baldintza guztiak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, eta, beraz, 9/2017 Legearen 202.3 artikuluan ezarritakoa betez, baldintza horiek ez betetzeak zigorrak ezartzea edo kontratua amaitzea ekar dezake, 211.f) artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

18.3. AZPIKONTRATAZIOA

1.- Azpikontratazioari dagokionez, SPKLaren 215, 216 eta 217 artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

18.4. HIZKUNTZA-BALDINTZAK

1.- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua.

Oiartzungo Udalean hizkuntzen erabilerari buruz indarrean dagoen araudia honako hau da: Oiartzunen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantza (1993an Osoko Bilkurak

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

onartua) eta Oiartzungo Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (V. Plangintzaldiari dagokiona, 2013ko abenduaren 18an onartu zuen Osoko Bilkurak, eta 2017ko abenduaren 31 arte egongo da indarrean).

Halaber, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu, eta horien artean ondorengoa agertzen da: "18 d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen." Hori dela eta, administrazioaren eta honen erakunde autonomoen kontratazioetarako pleguetan puntu berezi bat jasoko da eta bertan adieraziko da, kasuan kasuko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) atalean ezarritako neurriak dagozkion ala ez.

2.- Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; era berean, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak administrazioaren lan-hizkuntzaren araberakoak izango dira.

Oiartzungo Udalak lehenetsi egiten du euskararen erabilera barne nahiz kanpo harremanetan, aipatutako araudiari jarraikiz. Halaber, herritarrekin zuzeneko harremana duten zerbitzuak lehentasunezkoak dira udalarentzat, hizkuntza normalkuntzari dagokionez.

Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Kontratazio gaia den prestazioak zerbitzuaren erabiltzaileekin edo, oro har, jendearekin harremanak dakartzanean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera jokatuko da: zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari galdatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira. Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza-gaitasunei dagokienez.

3.- Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren **jarraipena**:

Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du, oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 62 eta 210 artikuluei jarraikiz:

a) Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.
b) Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratu-arduradunak, berariaz prestatutako jarraipen-euskarriak erabilita, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

4.- Hizkuntza-baldintzak ez betetzearen **ondorioak**:

Baldintza hauek kontratuaren nahitaezko betebeharrak izango dira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen eraginetarako, eta horrexegatik, baldintzak hauek ez betetzeak

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu; alegia, zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsitzea.

5.- **Eskakizun zehatzak:**

Hizkuntza-paisaia:
Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

Administrazioarekiko erabilera:
Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; era berean, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) administrazioaren lan-hizkuntzaren araberakoak izango dira. Oiartzungo Udalak lehenetsi egiten du euskararen erabilera barne nahiz kanpo harremanetan.

19. NORBERAREN DATUAK

Enpresa esleipendunak hauetan xedatutakoa bete beharko du: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Baldin, enpresa kontratistak edo subkontratistak, kontratua dela-eta, datu pertsonalak tratatzen edo eskuratzen baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoa beteko du, bai eta honako arau hauek ere:

1. Tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko ditu datuak kontratistak.

2. Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak hitzarmenaren helburua betetzeko bakarbakarrik erabiliko dira; ezingo dira, beraz, adierazitako xederako ez beste baterako erabili.

3. Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonal bat bera ere ez zaie hirugarrenei jakinaraziko. Horrenbestez, kontratistak hitz ematen du datuok edo horiekin sortutako fitxategiak ez dizkiola jakinaraziko, lagako, transferituko edo komunikatuko hirugarren bati, ez ahoz ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paper bidez, ez sarbide informatikoen bidez, ezta ikusteko ere.

4. Datuak isilpean edukitzeko betebeharra dute bai kontratistak bai kontratuaren xede den zerbitzuan esku hartzen duten langile guztiek, Datu Pertsonalen Lege Organikoan aipatzen den bezala. Kontratua bete delako edo suntsitu delako iraungi ondoren ere, betebehar horrek iraun egingo du.

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

5. Kontratistak hitz ematen du datuen babesaren arloko indarreko araudian eta Segurtasuneko Eskema Nazionalean eskatutako bitarteko tekniko, administratibo eta antolakuntzakoak hartuko dituela, hitzarmenaren xede den zerbitzua betetzeko behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko:

a) Horri dagokionez, lanean hasi aurretik, enpresak kontratazio-organoari zerrenda bat emango dio, datu pertsonalak eskuratzeko aukera izango duten langile guztien izenekin, abizenekin, funtzioekin eta lana garatuko duten lekuekin. Kontratua bete bitartean langile berriak sartu edo daudenei baja eman behar bazaie, enpresa esleipendunak zerrenda berri bat entregatuko du, aldaketa gertatu denetik gehienez ere astebeteko epean. Bai enpresa esleipendunak bai zerrenda horietan azaltzen diren langileek formalki hitz eman behar dute, idatziz, tratatutako datuei buruzko sekretu profesionala gordeko dutela.

b) Esleipendunak baldintza teknikoetan zehazten diren segurtasun-neurriak aplikatuko ditu tratamendu-zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan eta programetan, baldin eta halakorik zehazten bada.

c) Kontratuaren xede den zerbitzua bukatu ondoren, esleipendunak itzuli edo suntsitu edo ezabatu egingo ditu datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak. Suntsiketa egin ondoren ezinezkoa izango da horiek berreskuratzeko edozein prozesu aplikatzea. Akta bidez egingo da fitxategiak itzultzearen edo suntsitzearen ziurtagiria, eta enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendaritza betetzen duen pertsonak sinatuko dute. Aktan zirkunstantzia horiek guztiak jasoko dira.

Enpresa kontratistak edo azpi kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, Administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

20. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU-BETEBEHARRA

Indarrean dagoen legeriak informazio publikoa eskuratzeari buruz esaten duena errespetatuz eta SPKLak esleipenearen publizitateari buruz eta hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz xedatzen duena kaltetu gabe, Oiartzungo Udalak ezin izango du beren eskaintza aurkezteko unean, sekretu tekniko edo komertzialak direla arrazoituz enpresariek konfidentzialtzat ematen dituzten informazioak zabaldu, ez eta, eskaintzen alderdi konfidentzialak edo eta lehiaketa-prozedura honetan edo beste batzuetan konpetentzia faltsutzeko erabil daitekeen ezein informazio ere.

Oiartzungo Udalaren konfidentzialtasun betebeharra berriz, ezin izango da esleipendunaren eskaintzaren eduki osora zabaldu, ez eta lizitazio prozesuan zehar zuzenean edo zeharka sortzen den informe nahiz dokumentazio osora zabaldu ere. Zabalkunde mugatua duten dokumentuei bakarrik eragingo die, eta inolaz ere ez publikoki eskuragarriak diren dokumentuei.

Konfidentzialtasun betebeharrak ez dio konfidentzialak ez diren burututako kontratuen zatien zabaltzeari eragingo, besteak beste, likidazioa edo kontratatu diren enpresak eta azpikontratatutakoak, bere kasuan, eta kasu guztietan eskaintzaren alderdi esentzialak eta ondoren egiten diren kontratuaren aldaketak, beti ere Datu Pertsonalen Babesari buruzko legeria errespetatuz, aurreko klausulan adierazten den moduan.

Plegu edo kontratuan konfidentzialtzat eman den informazioa, edo bere izaeragatik konfidentzialtzat

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

hartu behar dena, eta esleipendunak kontratuaren exekuzioaren ondorioz ezagutzen duena, errespetatu egin beharko du. Betebehar honek informazioa ezagutu eta hogeita bost urtez iraungo du.

21. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Esleipendunaren ardura da kontratua-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

22. BERME EPEA

Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusten diren ondorioetarako, kontratua bukatzen denetik bi urteko berme epea ezartzen da.

23. KONTRATUA ALDATZEA

1.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 204 artikuluaren baitan aseguratutako kapitalak aldatzearen ondorioz primak eguneratu ahalko dira, bere kasuan, esleipen-prezioaren % 5eko mugarekin, eta kontratuko modalitate bakoitza erregulatzen duen Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusten dena kontuan hartuz.

2.- Aurreko kasu horietaz gain, behin kontratua burutzen denean interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da klausula honetan ezarritako kasuetan edo Sektore Publikoko Kontratuen Legea onesten duen, azaroak 9ko 9/2017 Legearen 205. Artikuluan ezarritako kasuetan eta bertan ezarritako mugekin. Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, kontratuaren arduradunak dagokion proposamena idatziko du, hura justifikatzen, deskribatzen eta baloratzen duten dokumentuek osatua. Administrazioak aldaketa onartu aurretik enpresa kontratistari entzun beharko zaio. Kontratazio organoak onartu beharko ditu aldaketak, SPKLren 191. Eta 207. Artikuluetan aurreikusitako prozedura tramitatu eta SPKLren 153. Artikuluan xedaturikoaren arabera dokumentu administratiboa formalizatu ondoren, behin betiko bermea berregokituta, hala behar badu.

24. KONTRATISTAREN ONDORENGOA IZATEA

1.- Enpresak edo horien jarduera-adarrak elkartu, bereizi, ekarri edo eskualdatuz gero, kontratuak indarrean jarraituko du ondoriozko erakundearekin.
Kasu horietan ondorengoak bere gain hartuko ditu kontratuaren eskubideak eta obligazioak, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 98. artikuluan eskatutako baldintzak ematen badira.

2.- Kontratistaren betebeharra da nortasun juridikoari eragin lekiokeen edozein aldaketa Administrazioari jakinaraztea, eta fakturak ordaintzeko legezko epea eten egingo da subrogazioaren baldintzak betetzen direla egiaztatu arte.

3.- Kontratua esleituko zaion erakundeak izan beharreko kaudimen-baldintzak betetzen ez baditu ezingo zaio subrogatu eta, kasu horretan, kontratistari leporatutako arrazoiengatik

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

amaitutzat emango da kontratua.

25. KONTRATUA LAGATZEA

1.- Kontratuari darizkion eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio pertsona edo enpresa esleipendunak, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria izan ez badira eta lagapenak merkatuko lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu.

2.- Kontratistak bere eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 214. artikuluan jasotako ondorengo mugekin eta baldintzekin:

a) Kontratazio-organoak, aurretik, eta berariaz, baimendu egin behar du lagapena.
b) Lagatzaileak, gutxienez, kontratuaren zenbatekoaren % 20a eginda izan behar du.
c) Lagapenaren hartzaileak Administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna izan behar du eta kontratuaren gauzatze-fasearen arabera eskatuko zaion kaudimena izan behar du; halaber, behar bezala sailkatuta egon behar du baldintza hori lagatzaileari eskatu bazaio eta ezingo da kontratatzeko debekuetan sartuta egon.
d) Esleipendunaren eta lagapenaren hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan jaso beharko da.

3.- Lagapen- hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

26. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Kontratua suntsitzeko arrazoiak, urriaren 8ko, 50/1980 Legeak, Aseguru Kontratua arautzen duenak aurreikusten dituenak izango dira.

Kontratua suntsitzeko ondorengo kausa ezartzen da espresuki: esleipendunak administrazioarekin kontratatzeko betekizunak galtzea (kontratistaren gaitasuna eta kontratatzeko debeku arrazoia ez izatea), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan ezartzen den arabera.

Era berean kontratua suntsitzeko arrazoi izango da plegu honetako 18. Klausulan jasotako kontratua gauzatzeko baldintza bereziren bat ez betetzea.

27. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZEHAPENAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

Kontratista behartuta dago kontratua betetzera gauzatzeko ezarrita dagoen epe barruan, baita, kasua balitz, ezarritako epe partzialetan ere.

Kontratista berandutza egoeran dagoela aitortzeko, ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurretik ohartaraztea.

A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

Kontratista, berari egotz dakizkieken arrazoiengatik, kontratuaren epe osoa edo, hala badagokio, epe partzialak betetzerakoan berandutzan erortzen baldin bada, Udalak kontratua bertan behera uzteko erabakia hartu ahal izango du. Kasu horretan bermea galdu egingo da. Horretaz gain, kontratatzaileari eguneko zigorrak ezarri ahal izango dizkio, honako proportzio honetan: 0,60.- euro eguneko kontratuaren prezioan jasotako 1.000.- euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatik zehapena kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean, kontratazio organoak kontratua suntsitzeko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko zehapen berriak ezarrita.

B. PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALARI BURUZ EDO PRESTAZIOAK AKATSEZ BETETZEARI BURUZ

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu edo prestazioak akatsez betetzen baditu, Udalak bi aukera izango ditu: kontratua suntsitzea, eta bermea galduko du edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko zehapena ezartzea.

C. EXEKUZIOKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEN EZ BADITU

Oso larritzat joko da exekuzio baldintza bereziak ez betetzea eta kontratuaren nahitaezko betebehartzat joko da, eta kontratua deuseztatzeko arrazoitzat hartuko da, baldin eta jarduera hori isolatua eta bideratzeko modukoa ez bada, eta kontratua deuseztatzea herri intereserako gomendagarritzat jotzen ez bada. Kasu horretan, beraz, dagokion zigorra ezarriko da.

- Arau orokor gisa, zigorra kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 1ekoa izango da, baina kontratazio organoak, behar bezala arrazoituta, uste badu hutsegitea larria edo oso larria dela. Azken kasu horretan zigorrak, hurrenez hurren, % 5ekoak, edo legez gehienera jar daitekeen % 10ekoak izan daitezke. Hutsegitea behin eta berriz gertatzen bada, hori kontuan hartu ahal izango da hutsegitearen larritasuna baloratzeko.

- Zigorrak bi modutara ordain daitezke: edo kontratistari egin behar zaion ordainketa osoan edo partzialetan zenbatekoak kenduta, edo bermetik kenduta; hori guztia SPKLaren 192 artikuluaren arabera.

Esleipendunak exekuzioko baldintza bereziak bete dituen egiaztatu ahal izango du kontratazio organoak kontratua egiten ari den edozein unetan, eta dena den, obren harrera egiten denean frogatuko da.

D. KONTRATUAREN BERME EPEAN BETEBEHARRAK BETE EZ IZANARI BURUZ

Enpresa kontratuak, hari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, ez badu betetzen bere obligazioa hornidura zuzendu edo konpontzeko eskainitako berme aldian, administrazioak era subsidiarioan exekutatu ahal izango ditu lanak kontratistaren kontura, baita ere, egunero penalitateak ezarriz, euro bat kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko, kalte-ordainarekin batera, sortutako kalte eta galerengatik.

28. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

Administrazioari dagokio: a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

29. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

1.- Baldintza agiri honen arabera egingo den kontratua zerbitzu-kontratua da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 17. artikuluak xedatutakoaren arabera. Kontratu pribatu izaera izango du, SPKLak 25.1.a).1º. artikuluan xedatutakoren arabera.

Kontratua erregulazio harmonizatuarenpean dago, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017ko Legearen 22. Artikuluaren arabera.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira kontratua arautuko dutenak:

- Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian jasotako klausulen arabera.
- Prestaketa eta esleipenari dagokionez, bai eta exekuzio baldintza bereziak, aldaketak, lagapena, azpikontratazioa eta kontratuaren amaierari dagokionean – azken hauek erregulazio armonizatuarenpean egoteagatik-, Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera, eta hau garatzen duten arauen arabera. Horien osagarri modura, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira, edo, hala balegokio, zuzenbide pribatuko arauak.
- Kontratuaren gainerako eraginei eta iraungipenari dagokienez, baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian xedatutakoak arautuko du, eta horien osagarri izango dira zuzenbide pribatuaren arauak, zehazki:
  - 1980ko urriaren 8ko 50/1980 Legea, Aseguru Kontratua arautzen duena.
  - 2004ko urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretua, aseguru pribatuen ordenazio eta ikuskapenerako Legearen testu bateratua onartzen duena.

2.- Administrazio Pleguaren eta espedienteari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak badaude, pleguan jarritakoak edukiko du nagusitasuna.

30. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratua aplikatzerakoan eta interpretatzerakoan, exekutatzerakoan, aldatzerakoan, betetzerakoan edota suntsiaraztekoan sortutako zalantzak kontratazio organoak ebatziko ditu, eta erabaki hauek berehala betearazleak dira.

Kontratuaren prestaketa eta esleipenari buruzko erabaki eta ebazpenak aurkarazteko jurisdikzio

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

eskuduna administrazioarekiko auzi-bidea izango da, eta jurisdikzio zibila, berriz, ondorioei, betetzeari eta iraungipenari buruzko auziei dagokienez.

Bestalde, SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako berraztertze-araubide berezia aplikatuko da, eta horregatik errekurtso berezia jarri daiteke.

31. KONTRATAZIO PROZEDURAN ERABILI BEHARREKO KOMUNIKABIDEAK.

SPKLen 140.1.4. artikuluan eta 15. xedapen gehigarrian xedaturikoaren arabera, kontratazio prozeduran egin behar diren komunikazioak eta jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez egingo dira.

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataformaren bidez egingo dira.

Jakinarazpen eta komunikazioak DEUC-ean ondorio horietarako ezarri den pertsonari zuzenduko zaizkio.

Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horrek DEUC agirian zehaztutako helbide elektronikora.

Bitarteko elektroniko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe; eta jakinarazpena Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataforman jartzen denean, jakinarazpen betekizuna epe barruan bete dela ulertuko da.

Oiartzunen, sinaduraren datan

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

I. ERANSKINA
LIZITATZAILEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEK JARRAITUKO DUTEN PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

"..... jaunak/andreak, NA ..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NA ....., (pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera) hiria ....., helbidea:....., etab.), eta **OIARTZUNGO UDALAREN ERANTZUKIZUN ZIBILA/PATRIMONIALAREN, ONDASUNETAN IZAN LITEZKEN KALTEEN ETA EKIPO ELEKTRONIKOEN ASEGURUEN** kontratazioa arautuko duen Baldintza Agiria eta gainerako baldintzak ezagututa

ADIERAZTEN DU:

I.- Ezagutzen dituela Baldintza Teknikoen Agiria, Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria eta kontratu hau arautuko duen gainerako dokumentazioa ere, eta berariaz bere osotasunean onartzen dituela inolako salbuespenik edo erreparorik gabe beteko dituelarik.

II.- Ordezkatzen duen enpresak kontratu hau burutzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako betebehar eta baldintza guztiak betetzen dituela.

III.- Ordezkatzen duen enpresa esleipenduna gertatuz gero, Oiartzungo Udalarekin sinatzen den kontratua kontratazio organoak onartutako Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agirian, Baldintza Teknikoen Agirian eta bere eskaintzan jasotakoarekin bat beteko duela, beste kontratu edo agiririk sinatu behar izan gabe; izan ere, kontratua arautuko da soil-soilik agiri horien arabera, eta baita araudi ezargarrien arabera ere.

Era berean, bere onespena ematen du kontratuaren lizitazio-, adjudikazio- eta egikaritze-prozesuetatik ondorioztatuko datu guztiei gardentasun instituzionala emateko, harik eta prozesua amaitzen den arte.

IV.- Lanaren, zergaren eta Gizarte Segurantzaren alorretan legeek edo araudiek xedatzen dutena betetzera behartzen dela.

V.- Berariaz adierazten du, eskaintza egiteko garaian, kontuan hartu dituela enplegua babesteko alorrean, lan baldintzen eta laneko arriskuak prebenitzeko alorrean indarrean dauden xedapenetatik sortutako betebeharrak eta ingurumena babestekoak direnak.

Ondorio horrekin, adierazten du, esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa ondorengoa dela:…….

Era berean, kontratua esleitu ondoren, aipatu langile horiei aplikatuko zaizkien lan baldintzen inguruan eskatuko zaion informazio oro kontratazio organoari ematera behartzen dela.

VI.- Esandako guztiaren arabera, konpromisoa hartzen duela kontratua burutzeko,

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

urteko ..... euroko osoko prezioan, honela banakatuta:

- Erantzukizun Zibila/Patrimonialaren Asegurua urteko …… euro
- Ondasunetan izan litezken Kalteen Asegurua urteko …… euro
- Ekipo Elektronikoen Asegurua urteko …… euro

Esandako prezioan kontzeptu guztiak barruan daudela ulertu behar da, eta hor: zergak, gastuak, arlo fiskaleko edozein tasa eta ordainketak sartzen dira, baita kontratistaren etekin industriala ere.

VII.- Polizen baldintzei dagokienez, proposamena hurrengoa dela:

a) ERANTZUKIZUN ZIBILA/PATRIMONIALARI dagokionez

1. Frankizia …….. euro ezbehar bakoitzeko
2. Ezbehar bakoitzeko gehienezko kalte-ordaina …….. euro
3. Biktima bakoitzeko azpimuga (Ustiapen estaldura, EZ Patronala, EZ Gurutzatutakoa) ……. euro
4. Urte edo epealdi bakoitzeko muga …….. euro
5. Estaldurak zabaltzea:
    a) Izaera pertsonaleko datuen babesetik eratorritako erantzukizun zibila sartzea: **BAI** / **EZ**
    b) Epai irmoan onartutako erantzukizun penalen ondorioz, Oiartzungo Udalari eska diezazkioketen ondorio zibiletarako erantzukizun zibileko estaldura sartzea: **BAI** /**EZ**
    c) Kanalen, eraikinetatik bereizitako lurren euste-hormen eta linea elektrikoen euste-dorreen erantzukizun zibileko estaldura sartzea:

    BAI /**EZ**
6. Eskainitako frankizia baino kalte-ordain txikiagoa dagokien ezbeharren zuzendaritza juridikoaz arduratzea: BAI /EZ
7. Poliza indarrean zegoen bitartean jasotako gertaeren ondorioz póliza amaitu ostean aurkeztutako erreklamazioetarako estalduraren epea……hilabete.

b) ONDASUNETAN IZAN LITEZKEN KALTEEI dagokionez

1. Berme nagusiari berme osagarrientzat eta berme gehigarrientzat ezbehar bakoitzeko frankizia …….. euro.
2. Estaldurak zabaltzea:
    - Hiri altzarietako ondasunen kasuan ekintza bandalikoen salbuespena ezabatzea, betiere estalduratik kanpo utzita pintadak, marradurak eta urradurak: **BAI** / **EZ**
    - Aseguru hartzaile eta/edo aseguratuaren jabetzak, kanpo kirol pistak (Baldintza teknikoaren agiriaren I eranskinean zerrendatutakoak) aseguruaren bermera

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

gehitzea: **BAI** / **EZ**

- Frankizia……euro ezbehar bakoitzeko.

- Arau proportzionala indargabetzea : **BAI** / **EZ**

3. Makinen matxuraren estaldurarako frankizia ……euro ezbehar bakoitzeko.
4. Kristalak, beirak, ispiluak eta errotulu argidunak apurtzen direnerako frankizia.....euro ezbehar bakoitzeko.

c) EKIPO ELEKTRONIKOEI dagokionez

1. Frankizia …….. euro ezbehar bakoitzeko.

.....en, 2022ko .....an

Sinadura. LIZITATZAILEA.”

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

II. ERANSKINA

LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA

1. Kontratazio prozeduretako izapideetarako (dokumentuak bidali, kontratuak sinatu, jakinarazpenak jaso…) lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko baldintzak.

1. 1. Baldintza administratiboak:

a) Ziurtagiri digital bat izatea, izapide elektronikoetarako baimendutako erabilera duena. Gaur egun, honako hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:

- Izenpe (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
- FMNT (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
- Nortasun agiri nazional elektronikoa
- Camerfirma (entitatea, herritarra).

b) Egoera hauetako batean egotea:

- Alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan
- Alta emanda egotea lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntzako sisteman.
- Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkarrekin aurkezten badira, formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa (ABEE) eratzeko konpromisoa hartuta, ABEEren konpromisoa aldi baterako gaikuntzako sisteman erregistratuta egon beharko da.

1. 2. Baldintza Teknikoak:

Elektronikoki lizitatzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa lotura honetan aurkitu daiteke:

http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/eu/contenidos/informacion/lic_elec_requisitos_tecnicos/es_def/index.shtml

1. 3. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua: 945 016298 telefonoan.

Zerbitzu hori ekipoak konfiguratzeko eta bidalketak egiteko eskainiko da. Gomendagarria da, batetik ordenagailuetan konfigurazioak egin aurretik lehenbailehen beraiekin hitz egitea eta bestetik, espedienteko eskaintzak aurkezteko epea bukatu aurretik

froga bat egitea.

2. Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua: Sistema erabili ahal izateko,

ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed

atari honetan sartu beharko da: www.contratacion.euskadi.eus

II.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataformaren bidez egingo dira.

Jakinarazpen eta komunikazioak DEUC-ean ondorio horietarako ezarri den pertsonari zuzenduko zaizkio.

Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horrek DEUC agirian zehaztutako helbide elektronikora.

Nork Sinatua / Firmado por: XABIER DE LA MOTA VAZQUEZ - 72512750Y
2022/10/06 11:42:09

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUac37999a-f8b4-4bc4-be8c-f4c00e6d0eed**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310***